

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 251. zenbakia. 2016ko abendua



**Ermuko gaztettoak
teknologian aditu**



OLENTZEROK ERE HORTZAK ZAINTZEN DITU!

Gabonetako otorduak ondo disfrutatzeko, familia eta lagunak ondo konpainiaz gain, egoera onean dauden hortzak behar ditugu. Ez da lehenengo aldia, turroi gogor edota jakiren batzuen hezurak direla eta haginak batek porrot egiten duela, enpatea jausten delako edota txantxar bat agerian jartzen delako. Horrela gertatuz gero lasai, lanean dihardugu-eta. Baina, puntu honetara heldu baino lehen, prebentzioari buruz hitz egin nahi dizugu Irale-tik: Hortzak etxetik zaintzen hasteko, eta horrelako disgustuak ekiditeko, txantxarrarengatik badira behintzat.

Zaindu ditzagun hortzak, txantxarra agertu baino lehen!

Zientzia aurrera doa, eta gure arloan atera diren produktu berriei esker, prebentzioa dugu protagonista hortzak zaintzeko. Inork desio ez duen txantxarra ez agertzeko, dentistaren laguntzarekin hasi gaitezke gure eskutan dagoen osasuna zaintzen. Jarraipide batzuk beteta, gure haginak luzaroan egon daitezke enpasterik gabe.

Gure lankide Imanolek odontologian hain ezaguna den Patricia Gatón-en eskutik ekarri dizkigu protokolorik berrienak, zientifikoki egiaztatutakoak, txantxarra sortzen duten bakterio horiek eraldatzeko (txikleak, gozokiak...).

Baina protokoloak bezain garrantzitsuak da haginak garbitzeko gogoia izatea. Gogoia sustatzeko, batez ere haurren, gurasoen inplikazioa behar beharrezkoa da. Musika dibertigarri bat ipini eta familia osoa komunean sartuta eskuilari eragin.

Ez al zarete zoragarri geratzen haginak garbitu eta gero?

Ahoan freskotasun hori nabaritzen?

Indartu ohitura gauero eta jolasa bihurtu eginkizunaren gainetik!



Zeharkalea 8, behea
943 17 71 34
clinicadentalirale.com

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Paul Bustindui,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ermuko Udala.

LAGUNTZAILEAK:

Anaitasuna Ikastola,
Koldo Aranberria,
Antonio Hernández 'Cuco',
Iñigo Lejardi,
Patxi López eta
Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Anaitasuna Ikastola,
Amaia Arginzoniz,
Paul Bustindui,
Kepa Carmona,
Danobatgroup,
Ermuko Udala,
Xabi Fernández,
Estibalitz González,
Ainhoa Lasuen,
Maitane Millán,
Valentin Mugarza,
Ricardo Totorika
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia,
Amaia Arrondo
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-21 3/1994.

*Drogeteniturririk ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Urtebarri barri (Entzuteko: www.alboka.es)

Urtebarri barri
txarri belarri,
daukanak
eztaukanari,
nik eztaukat
eta neri
kutxa bete gari!



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA.....4	BOTEPRONTOA.....16
Maitane Millán (Txile)	Rikardo Totorika
ELKARRIZKETA.....5-7	KIROLZALE.....17
Kepa Carmona Abu Dhabin	Xabi Fernández Ninjutsun
MALLABIAN ZER?.....8-9	IRITZIA.....18
Bertsolari gazteen finala	Gabonak, edo erosketen zoramena
MOTZEAN.....10	SALEROSKETA ETA AGURRAK....19
Antxitxiketan "Gabonak Nahasten"	Saldu, erosi edo agurtu
EROSKETA GIDA.....12-13	ANTZINAKOAK.....20
ERMUAN ZER?.....14	Ermua eta Mallabiko argazkiak
Gazteentzako teknologia tailerrak	KALEKO INKESTA.....21
ESKOLEN TXOKOA.....15	Kanterako obren ondorioak
Anaitasuna Ikastolako berriak	AGENDA.....22
	Urtarrileko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Maitane Millán

Urtebete eta lau hilabete igaro dira Ermua utzi zuenetik. Deustuko Unibertsitateak aukera eman zion Gizarte Langintzako azken urtea Txilen ikasi eta praktikak egiteko; aldi berean, etxetik kanpo esperientzia berria bizitzeko aukera izango zuen. Jende zoragarria ezagutu zuen urte horretan, tartean bikotekidea, eta bera izan da bertan geratzeko arrazoirik garrantzitsuenak.

- Erabaki erraza izan zen Txilera joatea eta bertan geratzea?

Ez zen erabaki erraza izan, baina familiak eta lagunak lagundu zidaten. Argi dago distantzia handia dela, eta horrek pisu handia izan zuen erabakia hartzeko orduan, baina pozik nago, eta eskertzekoa da gurasoek egin duten ahalegina ni hona etortzeko. Orain, gainera, nire bikotekidearen erabateko laguntza daukat, haren senideena eta hemen ditudan lagun guztiena.

- Nola imajinatzen zenuen Txile?

Pentsaera askearekin nentorren, beste kultura eta historia duen herrira nentorrela kontutan hartuta. Pentsatzen nuen hemengoak euskaldunak baino hurbilagoak izango zirela eta, denetik dagoen arren, inguruko guztiek eman didate maitasuna eta berotasuna hasieratik. Herri oso aberatsa da, eta asko ikasten ari naiz maila pertsonalean zein kulturalen.



- Zerk harritu zaitu gehien?

Santiago oso hiri handia da: zortzi milioi bizilagun ditu, eta ez nuen espero, baina gaur egun ondo moldatzen naiz. Hitz egiteko duten erak ere harritu ninduen: bertako esamoldeak erabiltzen dituzte eta hasieran ez da ezer ulertzen. Era berean, eguraldia bikaina da eta oso janari goxoa dute: Itsaskiak dira nire gustukoak (batzuk Txilen bakarrik topa daitezke), eta Patagoniako bildotsa.

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Noski: familia, lagunak eta Euskal Herria, 21 urte bizi izan naizen tokia. Aldaketa handia da beste herrialde batera joatea, baina balio handiko esperientzia da. Bizitzan gertatzen diren aldaketa guztiak aprobetxatu behar dira, eta uste dut kaos pixka bat behar dugula guztiok.

- Nolakoa da zure egun arrunt bat?

Oraindik ez daukat egun arruntik.

Berrito Santiagora heldu nintzenean, lan egiteko bisa eskatu nuen. Orain dela hilabete heldu zitzaidan lan egiteko baimena, baina oraindik ez daukat Txileko karneta, eta egoera honetan oso zaila da lan egonkorra aurkitzea. Aste-gunetan bikotekidearekin egoten naiz denbora librean, elkarrekin bizi garela; asteburuetan, aldiz, planak egiten ditut lagunekin.

- Noiz egon zara Ermuan azken aldiz?

Uztailean, hilabete. Bueltatzeko go-go handia dut, eta nire bikotekideak ere Euskal Herria ezagutzea nahiko nuke. Baina hori lanak aginduko du.

- Uste duzu Ermura bizitzera bueltatuko zarela?

Modu definitiboan ez dakit. Pertsona oro bueltatzen da zorionsu izan den lekura, baina momentuz nire lekua Santiagon dago.

Amaia Arginzoniz

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Kepa Carmona Yas Marina F1 zirkuituan.

Kepa Carmona, urtebete Abu Dhabin gidari bezala:

**“Nire ametsetako lana topatu dut,
existitzen zela jakin barik”**

2014ko abenduan urtebeteko eszedentzia hartu zuen Kepa Carmona ermua-
rrak munduari bira emateko asmoz. Thailandia, Vietnam, Kanbodia, Laos,
Malaysia, Australia, Zeelanda Berria eta Mexiko zituen buruan, baina bere
planek ez zuten luzaroan iraun. Bidaiatzen hasi eta 5. egunean, Bangkokon,
Arabiar Emirerri Batuetako hiriburuan bizi zen lagun talde irlandarra
ezagutu zuen (tartean bere egungo neska-laguna). Bertara, Abu Dhabira,
bisitan joateko gonbitea egin zioten eta handik hilabetera eurekin bildu zen.
Kotxeen zale amorratua, Formula 1 zirkuituaren eta Ferrari World
parkearen ondoan egoteak txundituta utzi zuen. Astebeterako joan, eta 3
aste egin zituen bertan. Nepal eta Indiara alde egin zuen jarraian, baina
bazekien Abu Dhabira bueltatuko zela. “Asko erakartzen ninduen zerbait
topatu bainuen bertan”, onartzen du. Gaur egun, Yas Marina F1 zirkuitua
eta Ferrari World parkea dira bere lantoki, eta Aston Martin GT4, Ferrari eta
Formula 3000en artean dihardu goizetik gauera.

- Irlandako lagunei hainbat bisita egin eta gero, azkenean eurekin Abu Dhabira bizitzera joatea erabaki zenuen. Noiztik daramazu bertan?

Bidaiatzen nengoela, 2015eko uztailean hona etorri nintzen bisitan, amama gaixorik zegoelako. Erabakita nuen irailean Abu Dhabira joatea eta bertara heltzean lana bilatzen hasi nintzen. Lagunak bizi diren lekutik Formula 1eko Yas Marina Circuit ikusten da. Kotxeak pilo bat gustatzen zaizkit; izan ere, hemen 3 urte eman nituen igoerak egiten. Beraz, niretzat hura paradisua zen. Kurrikuluma egin, eta zirkuitura joan nintzen. Berdin zitzaidan zertan lan egin, komunak garbitu behar banituen ere, aurrera!

- Asmo handirik gabe, beraz...

Bai. Ez nekien nola funtzionatzen zuen zirkuituak, baina banekien Racing School bat zeukatela, lasterketarako eskola, alegia, eta hara joan nintzen. Curriculuma hartu zidan mutilak Madrilgo neska-lagun ohia zuen, emozionatu egin zen eta lagunduko zidala esan zidan. Pozpozik joan nintzen etxera. Handik bi egunera WhatsAppa bidali zidan, egun berean managerrarekin elkarrizketa nuela.

- Eta zer moduz bertako buruzagiarekin?

Phil Ellis managerrak bere bulegoan egin zidan elka-

rizketa. Jarraian, gainontzeko bulegoak erakutsi zizkidan, jendea aurkeztu zidan... Zirkuitura jaitsi ginen, Mercedes GTS AMG 510 CV batera igo ninduen, *pit lanera* joan, eta topera: 250km/h! Benetan flipatuta nongoen, baina disimulatu nuen, niretzako ezer berria ez balitz bezala. Ondoren, Mercedes C63 500CV batera igo ginen. Hitz egiten hasi ginen eta ondo konpondu ginen. Beno, nik ez nuen erdia ere ulertzen: berak barre egiten zuela? nik ere barre; negar? negar... Asteartean proba bat egingo genuela esan zidan.

- Eta zer gertatu zen astearte horretan?

Beste instruktore batek, Janek, Aston Martin GT4 batera sartu ninduen, eta bi minututan azaldu zidan nola funtzionatzen zuen agintepanelak. Bi buelta eman zizkidan, eta gero nire txanda heldu zen. Bukatutakoan ez zuen gauza handirik esan, ez zegoen denborarik: bezeroak zetozen.

- Proba egunean lanean jarri zintuen. Bazenekien zein lan egin behar zenuen?

Beno, ordurako banekien eskola horretan gidatzeko esperientziak egiten zirela. Sei edo zazpi kotxe ezberdin daude, eta bezeroak datoz kotxe horiek gidatzen ikasteko, lasterketako kotxeak, hain zuzen ere. Horretarako *briefing*a egiten diegu hasie-

ran (irakaskuntza teorikoa, alegia), eta gero zirkuitura goaz.

- Eta egun hori izan zen zure estreinakoa?

Bai, Phil etorri zitzaidan, ea prest nongoen galdetu, eta bezeroekin utzi ninduen, ez nekien ia ingelesik! Baina beno, ondo irten zen. Egun horretan laupabost bezeroekin egon nintzen, eta hurrengo ostegunean bueltatzeko esan zidaten. Pozez zorutzen nongoen, baina poztasun neurtua zen, banekielako hori guztia onegia zela egia izateko. Asteak pasatu ahala, gauza berriak egiten hasi nintzen, eta Aston Martinetatik *drifting* ikasten zen gunera ere joaten hasi nintzen, atzeko trakzioa duten Toyota GTeekin. Ondo moldatu nintzen eta bezeroei hura ere irakasten hasi nintzen. Gero Formula 3000ekin hasi nintzen, eta tira, azkenean, denborarekin, toki bat egin dut zirkuituan.

- Ferrariak ere gidatzen dituzu. Nola hasi zinen Ferrari Worlden?

Aurtengo apirila inguruan Galiziako mutil bat hasi zen gurekin lanean. Esan zidan Ferrari Worlden lanean zegoela, Ferrariarekin *driving experience*ak egiten, baina utzi behar zuela, eta ea niri lan hura interesatzen zitzaidan. Yas Marinako eskolan *freelance*ak gara: ez digute bisarik egiten, ez dugu seguru medikorik... Turista bisa nuen, horregatik Ferrari Worldeko lan-kontratua interesatzen zitzaidan. Baina zirkuituko lana ez nuen utzi nahi, asko ikasten dudalako.



Kepa Emirates Palace hotel aurrean.

Ferrari jefeari nire egoera azaldu nion, banekien gidari bat behar zutela, eta nire baldintzak ipini nizkion: lanegunak eta soldata. Harrituta geratu nintzen onartu zituelako, eta hasieran sekulako poza sentitu nuen; orain amesgaiztoa bihurtu da ia-ia, lan gehiegi daukadalako.

- Hala ere, gauza berrietan trebatzen jarraitzen duzu, ezta?

Bai, Jaguar eta Land Roverreko ikastaro bat egin nuen, eta marka horietako instruktore ofizial titulua dut orain. Hasi naiz ekitaldiak eurentzako egiten Golekoko Ekialde Ertainean: Bahrein, Qatar, Dubai...

- Gauza asko gertatu zaizkizu oso denbora gutxian!

Bai, egunen batean, atzera begiratuko dut eta flipatuko dut ikustean non egon naizen eta zer egiten. Hobe- ren egiten dudana gauza gi-

“Une latzak igaro ditut, baina orain izen bat daukat zirkuituan”



Drogeteniturrri, 251 zk.




SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

datzea da, baina aukera gutxi nituen horrekin: kamioia, taxia eta autobusa. Bat-batean nire ametsetako lana topatu dut, existitzen zela jakin barik!! Une gogorak ere igaro ditut, hizkuntzarekin eta esperientzia ezagatik, baina orain izen bat daukat zirkuituan.

- Hizkuntzaren traba gainditu duzu?

Bai, 100% hitz egiten dut ingelesez egunerokotasunean. Arabierez 10 hitz esan ditzaket, kanpotarrak ez garrelako emiratiekin erlazionatzen. Oso kultura ezberdina dugu, eta eurek ez dute gurekin nahastu nahi. Ulerzekoa da. Guk egiten ditugun gauza asko euren erlijioan bekatu dira. Bekatari ba-

tzuk gara! Esaterako, ni ezin naiz hango neska batekin publikoan agertu ezkondu ez bagaude. Ez dute alkoholik edaten eta lizentzia behar duzu edan nahi baduzu. Kontuz bestela kalean mozortuta bazaude: kartzelara zoaz! Eta euren merkataritza-guneetara sartuz gero, neskek sorbaldak estali behar dituzte. Hala ere, oso jende ona da.

- Bertan atzerritarrak zarete gehienak, ezta?

Bai, %75 kanpotarrak. Hangoak tribu gutxi batzuk ziren eta 1940aren inguruan petrolioia topatu zuten, hazten hasi ziren, eta langile asko behar izan zituzten eta oraindik behar dituzte. Ez da kotizatzen, ez da erren-

“Hemen dena da artifiziala, gizakiak desertu erdian eraikitakoa”

ta-aitorpena egiten, ez dago BEZik... Lana bukatutakoan, ospa! Hangoek, aldiz, biziarteko soldata dute, ez dute lanik egin behar. Enpresa guztietan kargurik altuenean emiratiak daude, legez, baina ez dira lanera joaten.

- Zer izan da orain arte ikusi duzun gauzarik deigarriena?

Heldu nintzenean lekuak berak harritu ninduen: artifiziala da dena, gizakiak sortutakoa. Desertu erdian bat-batean eraikin erraldoi mordo agertzen dira, ematen du egunen batean denak porrot egingo duela.

- Temperatura ere aipatzeko modukoa da, ezta?

Bai, sasoi honetan ondo egoten da, 20-40 arteko graduekin. Baina apiriletik urri-edo, jasangaitza da, 50 gradutik gertu. 55 gradura ere heldu zen iaz, errekorra. Aire girotuan bizi gara.

- Garestia da Abu Dhabin bizitzea?

Janaria hemengoaren parekoa da. Beste gauza batzuk, aldiz, oso garestiak: alokairua, alkohola eta txerria, esaterako. Baina solda-

tak ere horren araberakoak dira.

- Zer egin daiteke aisialdian?

Hemen ez da kalean bizi-tzarik egiten, ezin da ezer egin. Horregatik, gauza asko antolatzen dituzte jendeak dirua gastatzeko. Esaterako, hotelek *brunchak* egiten dituzte: 12:00etatik 16:00etara 50 eta 300 euro bitarteko diru-kopuruaren truke, nahi duzun guztia jan eta edan dezakezu. Gainera, hondartza daukagu, igerilekua eta gimnasioa urbanizazioan... Asteburua bada, hegazkina hartu eta Omanera-edo joaten gara. Baina ez daukat ia denbora liberrik, egia esan.

- Nola ikusten duzu etorkizuna?

Gure asmoa da orain dirua aurrezte, eta hemendik urte batzuetara Irlandara joan eta etxe bat erostea. Niri gustatuko litzaidake Euskal Herrian negozioren bat martxan ipintzea, eta noizbehinka etorri behar izatea. Mendiak asko botatzen ditut faltan, bizitza naturala ikustea, eta nire jendea ere.

Dorleta Vidal




AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

Hamburguesería TITANIC



Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

KARABIXA



KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik



NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA



San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com




CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

ABIZENAK EUSKAL GRAFIAZ MODU OFIZIALEAN JARTZEKO AUKERA MALLABIAN

Euskal abizena modu ofizialean eta leku guztietan euskaraz idatzita izan nahi duenak Bake Epaitegian egin beharko du eskaera astelehenetik ostiralera goizeko 10:00etatik 14:00ak arte.

Euskal abizena modu ofizialean eta leku guztietan euskaraz idatzita izatea nahi duenak hiru pausutan egin dezake:

- 1) Erregistro Zibilera edo Bake Epaitegira joan eta esan abizena euskal grafiaz ipini nahi dela.
 - 2) Han emango dioten eskaera orria norberaren datuekin bete.
 - 3) Agiri hauek eraman:
 - Nortasun agiriaren fotokopia. Adinez nagusia ez denak gurasoena ere beharko du.
 - Hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria. Epaitegian eskatzen da.
 - Errolda agiria. Udaletxean eskatzen da, eta adinez nagusia ez denak gurasoena ere beharko du.
 - Familia liburuaren fotokopia. Ezkonduta dagoena edo seme-alabak dituenak.
 - Seme-alaben nortasun agiriaren fotokopia. 16 urtetik gorako seme-alabak dituenak.
- Izena edota abizena euskaraz nola idatzi behar den kontsultatzeko: www.euskaltzaindia.net helbidean.



UGARTETXEA BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO FINALEAN

Beñat Ugartetxea mallabitarrak parte hartu zuen Bilbao Arenan abenduaren 17an 4.150 bertsozale bildu zituen Bizkaiko Bertsolari Txapelketa nagusiko finalean. Xabier Amurizak jantzi zion txapela Etxahun Lekueri entzuleen txalo artean Xabat Gallettebeitiri irabazi ostean buruz-burukoa.



GABONETAKO FRONTENIS TXAPELKETA

Gabonetako Frontenis Txapelketa antolatuko du Mallabia Aretofutbol Taldeak 2017ko urtarrilaren 9ko zapatuan. Urtero parte-hartzaile asko batzen duen ekimena da, eta dagoe-



neko hasi dute izen-ematea 669 02 87 18 telefonoan. Txapelketa binaka jokatu dute, eta bikote bakoitzeko 16€ da izen-ematea. Bazkide direnentzat merkeagoa izango da, eta 8€ euro ordaindu beharko dute. Txapelketa irabazten duen bikoteak 150€ eta garaikurra eskuratuko du. Txapelkunordearentzako saria 100€ eta garaikurra dira. Txapelketatik ateratzen duten dirua kirol elkarteko beharrianak asetzeko erabiliko dute.

MALLABIKO BERTSOLARI GAZTEEN FINALA



Unai Mendizabal zizurkildarrak irabazi du Mallabiko Bertsolari Gazteen II Txapelketa. Herriko Tabernan hilaren 2an ospatutako finalean Ane Labaka lasartearra, Maider Arregi oñatiarra eta Aitor Salegi zestoarra garaitu zituen Mendizabalek, gazta eta makilaren saria jasoz. Mallabiko gazte bertsozale talde baten ekimena izan da txapelketa antolatzea: zazpi lagun bertsozale horiek arduratu dira txapelketarako gaiak pentsatzeaz ere. "Ikusirik Mallabian euskara eta bertsozaletasuna indarra galtzen dabilzala, pentsatu genuen interesgarria izan zitekeela horrelako ekimen bat martxan jartzea", azaldu du Xabat Uzuriaga gazte taldeko kideak. "Gainera, saioak bertso afa-rietan jokatu direnez, herriko tabernekin elkarlanean aritu gara", argitu du.

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Oh la lá!

EMAKUMENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefonoa: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

“BASERRIKO LANABESAK, TRESNAK ETA TREPETXUEK” LIBURUAREN AURKEZPENA



Leporaino bete zen Kontzejuzarra pasa den azaroaren 24an *Baserriko Lanabesak, Tresnak eta Trepexuek* liburuaren aurkezpena. Justo Azagirreri egindako omenaldiarekin ekin zioten aurkezpenari Pello Mugarzak eta Jesus Mari Uribelarreak, eta ondoren, liburuaren nondik norakoak argitu zizkieten bertara hurreratu zirenei. Liburua Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan egon da salgai eta Mallabiako Udalak Gabon hauetan ale bat oparituko du herriko etxe bakoitzean. Kultur Etxean eta Gerediaga elkartearen ere eskuragarri dago zortzi euroko prezioan

GABONETAKO EGITARUA

ABENDUAREN 24AN, larunbata:

17:00 Zinema Kultur Etxean.

Antolatzailea: Futbito Taldea.

18:30 Olentzero eta Mari Domingi plazan.

Antolatzailea: Zaparrada Kultur elkartea.

OHARRA: Olentzero eta Mari Domingirentzat gutunak jasoko dira: liburutegian, eskolan eta Udaletxeko buzoian.

ABENDUAREN 26AN eta 27AN, astelehena eta asteartean 11:30-13:30 // 16:30-19:30 Haur parkea frontoian: puzgarriak...

Antolatzailea: Mallabiko Udala.

ABENDUAREN 27AN, asteartea:

19:00 Hitzaldia: “Refugiados/refugiadas, la vergüenza de Europa”. Kontzejuzarrean.

Antolatzailea: Mallabiko Udala eta Kainabera GKE.

ABENDUAREN 30EAN, ostirala:

Gabon kantak baserri abesten.

Antolatzailea: Lagun Artean.

17:00 Zinema Kultur Etxean.

Antolatzailea: Futbito Taldea.

URTARRILAREN 3AN, asteartea:

19:00 Hitzaldia: Oihana Kortazar mendi korrikalaria. Kontzejuzarrean.

Antolatzailea: Mallabiko Udala.

URTARRILAREN 7AN, larunbata:

09:00 Frontenis maratokia. Frontoian.

Antolatzailea: Futbito Taldea.

URTARRILAREN 8AN, igandea:

16:00 Zinema Kultur Etxean.

Antolatzailea: Futbito Taldea.

URTARRILAREN 14AN, larunbata:

11:00 Euskaraz egiteko motibazio tailerra. Kontzejuzarrean.

Antolatzailea: Mallabiko Udala eta UEMA.

Paul Bustindui



ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com



IKASTOLAKO SAN MARTIN ARGAZKI LEHIAKETAK BADITU IRABAZLEAK



Anaitasuna Ikastolak V. Argazki Lehiaketa antolatu zuen aurtengo San Martin Azokan. Guztira, 63 argazki aurkeztu zituzten ikasleek, eta horien artean, honako hauek jaso dute saria: Asier Aranberrik, abereen argazkirik onena; Nerea Mugerzak, txerriaren argazkirik onena; eta Peru Blancok, baserriko produktuen argazkirik onena.

BIZIBIDE TALDEA EKIMENA AURKEZTU DA

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ermuko Udalak Bizibide Taldea ekimen berria aurkeztu zuten hilaren 16an. Enplegu proiektu honetan parte hartuko duten herritarrek bere gain hartuko dute lan-munduan txertatzeko prozesu propioaren lidergoa. Bide horretan lanbide-orientatzaile baten laguntza izango dute programa gauzatzen den 3 hilabeteetan.

DBHko gazteei zuzendutako egitaraua prestatu du Antxitxiketan taldeak Gabonetarako

DBHko ikasleei zuzendutako ekimen-sorta prestatu du Antxitxiketan Aisialdi taldeak, abenduaren 28tik urtarrilaren 5era arte. "Gabonak Nahasten" lelopean, mendi irteerak, egun pasak, eta bi gau etxetik kanpo lo egingo dute gazteek (Errekalearrean eta Urkiolan). Izena eman nahi izanez gero, 744452825 telefonora deitu edo antxitxiketanermua@hotmail.com helbidera idatzi beharko da abenduaren 21a baino lehen (prezioa, 80 euro).



80 lagun bildu ziren Euskararen Eguneko bazkari herrikoian

Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatu zen, eta Ermuan egun osoko egitaraua antolatu zuen Euskaltzaleen Sareak: eskolen ekitaldia, mezuaren irakurketa, trikipoteoa, umeentzako jolasak, txokolate-banaketa... Eguerdian, bazkari herrikoa burutu zen lehen aldiz, eta 80 lagun inguru bildu ziren Merkatu Plazan eurek ekarritako jakiak elkarbanatzera. Baina arratsaldean egin zen ekitaldirik jendetsuena, San Pelayoko parketan: kriseiluen aireratzea. Iazko kriseilu kopurua bikoiztu egin zuten antolatzaileek (100 iaz, 200 aurten), eta guzti-guztiak saldu zituzten. Horrela, 19:15ean herriko zerua argiz bete zen euskara aldarrikatzeko.



Argazkia: Ainhoa Lasuen.

Danobatgroup-ek antolatutako lehiaketak baditu irabazleak

Danobatgroup Kooperatiba Taldeak herritarrengana hurbildu eta euskararekiko duen konpromisoa ezagutzera eman nahian, lehiaketa antolatu zuen bere webgunean Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Lantegiak dituen herrietara zabaldu zuen lehiaketa hura: Elgoibar, Bergara, Soraluze, Andoain, Itziar eta Mallabira. Amets Aranbarri zestoarra eta Hoda Abdelouahab gasteiztarra izan dira sari-tuak, eta bakoitzak smartwatch bana jaso du.



Caperos

Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkeoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Ervailak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 **ERMUA**

TALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

Heapaindegia

MT

MT Heapaindegia
C/ Marqués de valdespina nº 8 bajo
48260 Ermua (Bizkaia)
tlf. 943170474
Móvil. 688819336

Silvia Gastón Izaquirre
facebook: <https://www.facebook.com/heapaindegiamttxuqueria>



ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Matrikula zabalik

Ikastaroa urtarriletik ekainera

TALDEAK MAILAK ETA ORDUTEGIAK

9:15-11:15 ASTELEHENA ASTEARTEA OSTEGUNA	11:00-13:00 ASTELEHENA ASTEAZKENA	16:00-18:00 ASTELEHENA ASTEAZKENA OSTEGUNA	18:30-20:30 ASTELEHENA ASTEAZKENA	18:30-20:30 ASTELEHENA ASTEARTEA OSTEGUNA
B2 MAILA	A1 MAILA	B1 MAILA	A1 MAILA	B2 MAILA
C1 MAILA		B2 MAILA		C1 MAILA

HABEren AZTERKETAK MAIATZEAN

A1eko eta B1eko azterketak euskaltegian

Langabetuek prezio erdia

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua

Tel: 943170925

euskaltegia@udalermua.net



GABONETAKO E

Kokko

f Kokko
Zubiaurre 29, behea
48260 ERMUA (Bizkaia) Tel. 943 25 46 61

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Goenkale, 9 • 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com [f] [i]

Bitxi-denda
Erloju-denda

Senén
1978

Táiler propia

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbideta 4 ERMUA (48260) BIZKAIA. Webgunea: joyerisenen.com - Emaila: joyerisenen@gmail.com

IZARBI

Goenkale, 7 - 48260 Ermua - 946 590 140
f Izarbi Ermua

EZ GALDU
INOIZ
IZARBIREN
ARGIA
EGUBERRI ONII

ARINKA OINETAKOAK

Andra, ume eta gazteentzako zapatak

Sexto Centenario, 17
ERMUA (BIZKAIA)
943 174126

AUTOSERVICIO DE CALZADO **PABLO** OINETAKO AUTOZERBITZUA

Sexto Centenario 19, ERMUA
943 17 54 09

SAGARDUI
poltsak

Poltsak, karterak, gerrikoak, manikurak, maletak, osagarriak eta opariak.

943 170305 sagardui@sagardui.com
Zubiaurre 29
48260 Ermua (Bizkaia)

XIRIPOT
LIBURUDENDA

ZUBIAURRE, 15
ERMUA
TLF: 943 17 25 12

bizkaiko kultur txartela

IZAGIRRE

Calvin Klein
Punto Blanco
DIM
Guess
Playtex
Tommy Hilfiger
Freya...

Komentukua kalea 2 48260 Ermua - Bizkaia **943 170 277**




EROSKETA GIDA



optika
itze

Probaleku 7 · Ermua
943 17 46 51



KDTattoo

f kade.kdtatto
i KDTATO_NII
t 669207364
e nietto86@gmail.com
l San Pelayo 22 · ERMUA

Ekarri zure lagunak,
eta SMARTWATCH bana
jasoko duzue **DOAN!**




846 080 010
Orbe Kardinala plaza, 6 · Ermua
www.esanline.es

esanline[®]

F. PASCUAL Arane, 6
Tif.: 943 20 61 64
Fax: 943 20 85 43
20600 EIBAR
(Guipúzcoa)

VIRGINIA PASCUAL
Zubiaurre, 36-38 (bajo)
Tel y Fax: 943 17 68 28
48260 ERMUA (Vizcaya)

MUEBLES DE COCINA
INTERIORES

www.cocinaspascual.com

**ZAPA
TXIKI**



c/ Zubiaurre, 20 - ERMUA

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
**KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK** ere
egiten ditugu



943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Ermuko zuntz optikoko sarea

Abiadura handiko Internet

HD Telebista

ANIMA ZAITEZ
eta EMAN IZENA!
abendurarte dohainik

Goatzeko izena eman!
943 17 91 53

adamo
www.adamo.es

SARENET
www.sarenet.es

nubi
TELECOM SOLUTIONS
www.nubip.com

esanline[®]
www.esanline.es

Telefonoa

Telefono mugikorra

Zuntza gure etxeetara iritsi da eta mundura zabalduko gaitu

fibermuo

ermua

pronosa
PROMOCIÓN ECONOMICA DEL
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

Hiru sormen eta robotika tailer antolatu dira gaztetzarentzat

Ermuko Udaleko Toki-Garapen alorrak DBHko lehen eta bigarren mailan dauden herriko ikasleentzat hiru tailer antolatu ditu. Abenduko azken astean burutuko dira, eta tailerron helburuak dira herriko gazteak industriara eta teknologia berrietara hurbiltzea, sorkuntza-gaitasunak garatzea eta ekintzailetasuna bultzatzea.

1 2 eta 13 urte bitarteko 42 ermuarrek eman dute izena janda Gabonetako sormen eta robotika tailerretan. Iaz jarri zen martxan programa hau, (2 Campus Teknologiko eta 3 robotika tailerrekin), eta izan zuten arrakasta ikusita, aurten ere jarraipena ematea erabaki du Ermuko Udalak.

Alde batetik, Zubiondo enpresak hainbat erronka aurkeztuko dizkie gaztetzoei, diseinuari, ergonomiari eta erabilerari dagokienez erremintak hobetu ahal izateko. Horretarako, *design thinking*, sormen teknikak, ikus-entzunezko narratibak eta abar erabiliko dituzte.

Bide horretan, Artforlife!! eta Filmatu enpresen laguntza jasoko dute.

Halaber, beste bi tailerrak robotikaren inguruak izango dira, eta *dronen* eta *roverren* diseinua eta muntaia landuko dira Erle Robotics enpresaren eskutik. Abenduaren 26tik 30era burutuko dira ekimen horiek Izarra Centre eraikinean, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin.

Maker tailerra

Honekin lotuta, Maker tailerra egin zen azaroaren 19an, 8 eta 12 urte bitarteko 40 neska-mutilekin. Udalaren webgunean irakurri daitekeenez, besteak beste, errealitate birtualeko be-



taurrekoak probatu, bideojoko dibertigarriak garatu, hortzetako eskuilarekin robot txikiak sortu, lekak eta platanoak erabilita musika jo eta 3D inpresoren funtzionamendua ikusi ahal izan zuten parte-hartzaileek.

Ekimen horren barnean, Eusko Jaurlaritzak finantzatutako "ETE erronkak ikasgeletan" lehiaketan garaile suertatu ziren taldeak saritu ziren. San Pelayo Ikastetxeko Ane Gonzálezek, Eurne Roblesek, Ander Postigok eta Julen Pérezek irabazi zuten lehen saria, martxak

automatikoki aldatzen zituena bizikleta sortu eta gero. Bigarren saria irabazi zuten Unai Osak, Jon Rodríguezek, Seve Eduk, Miguel Fernándezek eta Nikolas Viñak (Uni Eibar-Ermua Ikastetxea), Bici-Tech asmakizunari esker. Azkenik, Armeria Eskolako Urko Urizarbarrenak, Mohamed Hdidouk eta Amaia Ballesterosek eskuratu zuten hirugarren saria, GPSa eta ehun fotoboltaikoa zituen kaskoari esker. Ekitaldi horrek itxi zuen Ermuko XI. Toki-Garapeneko Astea.

Dorleta Vidal

Paco autobus geltokiaren ondoan gaude

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es



Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g · 943030527

Bizikletaz Derion

Urriaren 11n (asteartea), 4. mailako ikasleak Deriora joan ziren bizikletaren mekanika ezagutu, bide hezkuntza landu eta bizikletaz ibiltzera. Beharrezko materiala bertan laga zieten. Hasieran alde teorikoa landu zuten, eta gero alde praktikoa aeromodelismo pistan burutu zuten. Goiza pasa ondoren 13:30erako itzuli ziren Ikastolara.



Azaroak 25

Azaroaren 25ean, Anaitasuna Ikastolan Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna ospatu genuen. Eguna horretarako, ikasleek, adinaren arabera, ekintza desberdinak burutu zituzten, eta egunean bertan jolastokira irten ginen abesti polit bat abestera, eta denon artean zirkulu more bat egitera. Benetan polita gelditu zen.

San Martin Azoka Ikastolan

Azaroaren 9an, ikastetxeko liburutegian, "San Martin txiki" azoka antolatu genuen ortuko produktuekin. Egunean zehar gela guztietako ikasleak bertatik pasatu ziren, zegozkien lanak egitera. Lauretatik bostetara, azoka irekita egon zen eta nahi zuenak bisita egiteko aukera izan zuen.

Baratze-Lurraska egonaldiak

Urriaren 19, 20 eta 21ean 2. eta 4. mailako ikasleek ziklo bukaerako irteera egin zuten. 2. mailakoak Lurraskara joan ziren eta 4. mailakoak Baratze. Bertan maila bietako ikasleek ingurumenarekin lotutako hainbat ekintza egin zituzten euskal giroan murgilduta. Esperientzia polita bizi izan zuten.



Ermuacentrocomercial

ERMUKO MERKATARI ETA OSTALARI ELKARTEA
 ASOCIACIÓN DE COMERCIANTES Y HOSTELEROS DE ERMUA



Hemen zeu
 zara gunea

Zorionak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA,
 MERKATUTZA ETA TURISMO SAILA
 DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
 INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

RICARDO TOTORIKA

- **Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?**


Ermua herri txiki bat zen. Valdespina Markesaren kalean bizi nintzen, 8. zenbakian. Nire etxeko atarian, Madariagaren tailerra zegoen. Etxeko leihotatik begiratzuz gero, Hanbretik datorren erreka eta Valdespinako zubia ikusten nituen. Lau baserri nituen inguruan: Antonatxa, Motxunekoa, Otxua eta Arrako. Valdespina kaleko denda eta tabernak ezin ahaztu: Ostaturkua tabernajatekxa, Botxo taberna, Iturrineko bodega, Kooperatiba denda (gero Eroski bihurtuko zena), Bizkaiko Aurrezki Kutxa eta nire tia Tere eta tia Inoren dendaxoa.

- **Eta gaztaroa?**

Hamaika urte nituela, fraile marianista bat etorri zen Ermuko eskolara galdeztzen ea nork nahi zuen Eskoriatzara joan, euren ikastetxera, marianista izateko, eta hara joan nintzen. Marianistetan egon nintzen hamaikatik hogeita sei urte bete arte. Beraiekin egin nituen nire irakasle ikasketak eta lehenengo urteak eskolak ematen. Beraiekin ikasituen kristau erlijioaren zentzua pertsona baten bizitzan.

- **Zein da zure ama-hizkuntza?**

Etxeko hizkuntza euskara izan zen. Eskolan hasi gineanean gaztelania zen hizkuntza bakarra eta urteak aurrera zihoazela euskara ito-



Malengonean jaio zen duela 67 urte. Aita Antonatxa baserrikoa zuen, ama Komentukua etxekoa. Bost anai-arreben artean bera da nagusiena. Irakasle ikasketak egin zituen eta bizitza guztia igaro du Ongaraiko eskoletan. Egun erretiratuta dago. Bi seme ditu eta biloba jaioberria.

tzen joan zen. Hogeita sei urterekin euskaraz alfabetatzen hasi nintzen eta euskara berreskuratzen. Gero eskolan lan asko egin dut umei euskara erakusten.

- **Zer irakatsi zizuten gura-soek?**

Anaiekin elkar bizi izaten eta gauzak konpartitzen. Besteri laguntzen ahal den guztietan. Aitarengandik katurako eta mendian ibiltzeko gustua jaso nituen.

- **Eta zer irakatsi dizu bizitzak?**

Besteak ez epaitzen. Besteren alde onak ikusten.

- **GKE batekin kolaboratzen duzu, ezta?**

Bai, Eguarbitzan. Ermuko elizako talde bat da, eta herriko Kooperazio Kontseiluarren barruan gaude lanean.

- **Zertan datza?**

Txirotutako herrien alde egitea da gure asmoa. Ekua-dorren, misiolari euskaldu-

nak egon ziren lekuan, proiektuak bultzatzen ditugu. Garrantzitsuen Babahoyon dagoen Giza Eskubideen bulegoa da. Horrez gain, Ermuko Kooperazio Kontseiluarren helburu nagusia da herriko jendea sentsibilizatzea. Kultur arteko jaia antolatzen lan egiten dugu eta boluntariotza linguistikoa egiten dut "Hitz egidazu" programan.

- **Nora joango zinateke oportretan?**

Tunezera. Esan didate han daudela munduko erromatarren mosaikorik onenak. Jubilatu berri nengoe-la bertara joateko prest geunden, baina gerra hasi zen eta Tunezera bidaiak suspenditu egin ziren. Espainian dauden mosaiko erromatar onenak Palentzian daude, La Olmedan, sarri ikusten ditut eta hortik datorrit gogoia.

- **Eguneko momentu bat...**

Nire emaztearekin paseoan ibiltzeko ordua.

- **Zure bizitzako egunik zorionsuena?**

Egun zorionsu asko izan ditut bizitzan zehar. Azkeneko bi egun ditut buruan: seme bat ezkondu zenean eta nire iloba jaioberria besoetan hartu nuenean.

- **Zer miresten duzu pertsona batengan?**

Pertsona giariak, apartako inteligentzia dutenak eta erabiltzen dutenak kapazitate hori besteen zerbitzurako.

Armaia Arginzoniz

mari asun 
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

KRABI 
Ileapaindegia
Estetika
Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Xabi Fernández, Ninjutsuko borrokalaria:

“Kirol honetan balio gehiago du indarrak trebeziak baino”

Zazpi edo zortzi urterekin hasi zen Ninjutsu praktikatzen, Kiroldegiko udaleku batzuetan izena eman eta gero. Gaur egun 18 urte ditu Xabi Fernández ermuarrak eta 23 sari eskuratu ditu jada: nazioarteko 11 sari, Espainiako 2, 9 trofeo Euskadi mailan eta bakarra probintzian.

- Zer dela-eta hasi zinen Ninjutsua praktikatzen?

Ermuko Kiroldegian zeuden udaleku batzuetara apuntatzeko esan zidan amak, gustatuko zitzaidalako, eta horrela hasi zen dena. Garai hartan nahiko alferra nintzen, eta ez zitzaidan batere gustatzen nekatztea. Denborarekin aldatzen joan nintzen, eta duela lauzpabost urte hasi nintzen beste arte martzial batzuk probatzen, Ninjutsua alde batera utzi gabe.

- Espainiako zenbat txapelketetan parte hartu izan duzu?

Espainiako hiru txapelketatan egonda nago, eta ez dira batere errazak izan. Hori bai, garaipenak eta galarak bidearen zati dira, ikasteko balio dutenak, noski. Nazioartean ere lehiatu izan dut.

- Kirol hau praktikatzeko zer behar da gehiago fisikoa, burua ala biak?

Fisikoa ezinbestekoa da, baina estrategiak ere beharrezkoak dira, ez dakit esaten zein den beharrezkoena. Baina nire ustez fisikoa da, gehiago balio duelako indarrak trebeziak baino.

- Bakarrik entrenatzen duzu edo baduzu laguntzarik?

Beti izan dut laguntza, maisuak edo ezagutza asko duten lagunak. Ez dut bakarrik entrenatzen beste batekin entrenatzea errazago egiten delako, pikeak sortzen dira, eta gustuko ditut pikeok. Egia da entrenatzeko era jakinda, bakarrik entrenatu izan dudala aurtan, baina kide baten alboan beti.

- Entrenatzaileran bat gogoan duzu?

Irakasle asko izan ditut, guk *maestro* deitzen diegu.

Nire *maestro* nagusia, bizitza osoa nirekin dabilena, Juan Carlos da. Nahiz eta gauza askotan aldendu, batera gaudu, eta elkarri laguntzeko prest. Ez ditut nire kideak ahazten, asko eskertzen diet euri ere. Toni Serrapio *maestroari* asko eskertzen diot bere eskua luzatzea eta nigan sinestea. Igorritako balioak bizitzarako ezinbestekoak dira, eskertzekoa da hori guztia. Familia moduko bat osatu da gure artean.

- Etxeko familiak ere beti lagundu zaitu?

Baina nire gurasoak ere mirestekoak dira: lehiaketetara eraman, ekonomikoki lagundu... Beti egon dira nire ondoan. Nire lagun minena ere talde honetan sartzen da.

- Kirol arloan, baduzu momentu bereziren bat gogoan?



Toni ezagutu nuen eguna. Entrenatzen geundela, borrokan, begian ukabilkada jaso eta kirol hau maite nuela konturatu nintzen. Beste momentu bat ere badut gogoan, lagunarekin Errekalderra joan ginen entrenatzera. Egun euritsua zen, lokatza nonahi. Dibertigarria izan zen, merezi izan zuen!

Amaita Arginzoniz

OINAK
LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
943 17 47 44

san pelayo
clínica dental hortz klinika
San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)
Olatz Garcia Arregui
943 17 04 04

**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**
Marfil
Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!
Egokitutako burua
garbitzeko konketa
943 17 28 09 • Goienkale 12

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza
juridikoa
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PUB YOMY
Zubiaurre
kalearen
bihotzean

es
egolek
electrizitatea
iluminazioa
M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Gabonak, edo erosketen zoramena

Egun gutxi batzuk falta dira Gabonetarako eta Londreseko merkataritza-gune eta kaleak jendez gainezka daude. Abenduko lehenengo egunean egin zuten argien eta apaingarrien aurkezpena: Urteko erosketa-sasoi zoroenerako pistola tiroa. Erosketa-sasoi moduan ari naiz Gabonei buruz, ia ekintza guztiak opariekin eta gastuarekin erlazionatuta daudelako. Sohoko jate-txeetako mahaiepe bakar batean ere ez da Zara edo Mangoko poltsarik falta. Hiri honetako biztanle bakar bat ezagutzea gustatuko litzaidake, lagun ezkutu edo 'Secret Santa' demoniorako erregaluei buruz arduratu beharrik ez duena.

Gure kasuan 10 libra *bakarrik* gastatu ditzakegu lankideentzako oparian. Baina lagunaren artean ere gauza bera egitea pentsatu dugu, eta kasu honetan 50 librakoa da

aurrekontua. Bestalde, 5 kilo ganba erostea tokatu zait Eguberri afarirako -ez dut pentsatu ere egin nahi zenbatean dagoen kila!-. Ermuko lagunek aurreko egunean esan zidaten aurten 5 euroko botea ipiniko dugula loteriarako. Jainkoari esker familiarekin bizi ez naizela, eta Olentzerok aspaldi ahaztu ninduela, bestela lehenengo saria tokatu beharko litzaidake kuadrillarekin batera!

Batzuk diote poltsikoak urtean behin bakarrik egin behar duela esfortzua. Gezur galanta! Gabonak baino lehen *Black Friday*an telebista bat erosteko beharra sentitzen dugu, etxekoa zahartuta dagoelakoan. Urtarrileko beherapenetan, hiru praka pare, zapata pare bi eta kaltzontzilo mordoa behar ditugu. Udaberriko lehenengo eguzki izpiekin bikiniaren beharra igartzen dugu, eta horren



Iñigo Lejardi

ostean, udako beherapenak... Ez dago damutzeko denborarik, kreditu txartela erabiltzeko hurrengo unea iristeko zorian da! Eta nire ustez *shoppinga* denbora-pasa aspergarri eta garestia besterik ez da.

Zoramen hau bizi izan ondoren, nik behintzat erabaki bat hartu dut: Aurten ez dut dirurik xahutuko tontakeriarik erosten. Horren ordez, Thailandiara joateko aurreztuko dut. Hori bai dela merezi duen gauza bat, eta ez lagun ezkutuarentzako galtzerdi pare ziztrin bat!

“ *Batzuk diote poltsikoak urtean behin bakarrik egin behar duela esfortzua. Gezur galanta!* ”



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

uriarteasesores ✓

Aholkularitza fiskala
 eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
 48260 · Ermua · Bizkaia

solozabal
tabakoak

torrekua 1
 tel./fax: 943 17 07 33



Pub Dakota



Probaleku, z/g
 Ermua (Bizkaia)
 dakotaermua@hotmail.com

ALOKAIRUA

Pisia alokatzen dut Zubiurre 24an. Bi logela ditu.
 ☎ 648 64 37 15

Pisia alokatzen dut Iparragirre kalean. Bi logela ditu.
 ☎ 669 20 91 83



Abenduaren 16an Zorionak Gorka! Urtebetetxo egin-go duzu! Ondo pasa eta patxo handi bat familia guztiaren partez.



Abenduaren 12an Zorionak Uxue familia osoaren partez. Jator jarraitu!



Abenduaren 3an Zorionak printzesa familiaren partez, muxu asko.



Urtarrilaren 2an Zorionak Laida zure bigarren urtebetetzean, printzesa! Musu handi-handia aita eta amaren partez.



Abenduaren 18an Zure osaba-izekok eta lehengusuak urtebetze zoriontsua opa dizuegu. Musu erraldoia zure 6. urtebetetzean!



Abenduaren 18an Zorionak neska handi zure hirugarren urtebetetzean. Gustura ospatu zure eguna. Musu potolo bat aita, ama eta Eiderren partez.



Abenduaren 12an Zorionak tia Irune!! Musu handi-handi bat zure loben partez eta eskerrik asko zaren modukoa izateagatik!!



Maier (abenduaren 2an), Aiur (urtarrilaren 28an) eta Aiora (abenduaren 19an) Zorionak hirukote familia osoaren partez. Patxo pilo-pilo bat!



Azaroaren 18an (Ander) eta urtarrilaren 8an (aita) Zorionak Ander zure bigarren urtebetetzean. Familia osoaren partez, musu handi bat. Eta zorionak aita! Ondo pasa zure egunean!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua:
drogeten@gmail.com
 Azken eguna:
Urtarrilaren 18a

arral arral97.com

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia
- Pazo Señorans
- Txakoli Akarregi
- Añada Real
- Vicente Gandía
- Milana
- Yllera taldea
- Oriol Rossell
- La Loca Juana
- Gomez Cruzado
- Astobiza txakolina
- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

IZASKUN TXURRUKA

Goienkate 9 Bajo
 48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
 peluqueriaizaskun.wordpress.com

TORREKUA

Pintxo eta kazolatxoak

Torrekua kalea 2 - Ermua
 943 17 69 29

**MALLABIA
1924**

Argazki hau 1924 ingurukoa da, bertan Ibargarai baserriko Garitagoitia-Astarloa familia ageri da, baserri ondoko zelaian ateratako argazkian.

Argazkian agertzen dira Ceferino Garitagoitia, bere emaztea Juana Francisca Astarloa eta beraien seme-alabak: Pascual, Alejandro, Evarista, Juli, Eugenia, Vicente, Josefa, Victoria, Florentina eta Clara.

1936ko gerran, Hanbreko gasolindegia dagoen inguruan bonbardaketa egon omen zen, eta zauritutako soldaduak Ibargarai baserrira eraman omen zituzten, bertan artatzeko. Ondoren, baserriko bi bizitzetako familiek tifus gaixotasuna harrapatu omen zuten eta horren ondorioz 1936 urtean bertan, egun berean hil omen ziren Juana Francisca, ama, eta Florentina, alaba. Azken horrek 16 urte zituela.

**ERMUA
1951**

Zubiaurreko erreka gaineko petrilean, Pedromarianeko etxe parean, gaur egun Patxi Plaza. Ezkerretik hasita José Antonio San Martín, Luis Mari Izagirre, Loren Goitandia, Jesús Altuna eta Angel Fernández kamerari begira irribarretsu; argazkiaren eskuma aldeko gizon hirukotea, oster, Erdiko kaleko harutz-honutzari.

Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

Proba-Leku

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

2017an hasiko dira kanterako etxebizitzak eta aparkalekuak eraikitzeko lanak, egun aparkaleku handia eta merkatu txikia kokatzen den esparruan. Udalak argitu duenez, 18 etxebizitza eta 180 garaje inguru egingo dira: 6 solairuko eraikina, lur azpiko 2 garaje-solairu izango dituen. Lanak bukatutakoan (2 urteko epean, gutxi gora behera), aparkalekuak, merkatu txikia eta barrakak ipintzeko eremua geratuko da bertan.

**Obrek irauten duten bitartean, herriko zein tokitan ipiniko zenuke merkatu txikia?
Non aparkatu dezakete kotxeek bitartean?**



Uste dut Merkatu Plaza leku egokia izan daitekeela merkatu txikia ipintzeko: hotz egiten duenean babestua dago eta aparkatzeko lekua dago azpian. San Pelayo ere izan daiteke, pergolatik alde honetara. Aparkalekuei dagokienez, ez da erraza, baina jabeek aparkatzeko modua aurkitu beharko dute.

Flori Maestro, 68 urte



San Pelayon ipiniko nuke merkatu txikia, ez dut beste aukerarik ikusten. Aparkalekuei dagokienez, txarto ikusten dut. Arazo handia dago herri honetan, ni arratsaldetan ez naiz kotxearekin ibiltzen ezin dudalako gero aparkatu. Uste dut kotxea dugunoi, baina dirurik ez, garajea eman beharko liguketela.

Tere Luis, 58 urte



Merkatu txikia ipintzeko lekurik aproposena plaza da, frontoi ondoan ipiniko nuke nik. Gainera, Udalak aparkaleku publikoa eraiki beharko luke, Valdespinakoa bakarrik dagoelako herrian. Ez nago etxeak eraikitzearen kontra, baina herri honetan arazo larria dago aparkalekuekin, eta uste dut Udalak aukerak eskaini beharko lituzkeela.

Ander Olalde, 22 urte



Ermukoa izan arren, Eibarren bizi naiz, eta ez nekien ezer honi buruz. Uste dut San Pelayo izan daitekeela aukera egokia merkatu txikiarentzat. Aparkalekuei dagokienez, iruditzen zait aparkalekuak kentzen dituztela, eta garaje pribatuak salgai ipini. Erostera derrigortzen gaituzte, ez dut ondo ikusten.

Ivan Ibarrola, 43 urte

Tasio eta Sabino



- Ur beroarekin garbituko dugu. Laster merkatu txikiko obrak hasiko dira-eta!

ZINEA

7tik 9ra
 "Hasta el último hombre"
 + "La reina de España"

14tik 16ra
 "Rogue One: una historia de Star Wars 3D" + El ciudadano ilustre"

21etik 23ra
 "Assasin's Creed" + "Frantz"

28tik 30era
 "Passengers 3D" + "Comanchería"
 Ermua Antzokian.
 Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 5
 "La doncella"

Hilak 12
 "Bar Bahar"

Hilak 19
 "Paterson"

Hilak 26
 "La comuna"
 Ermua Antzokian.
 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 8
Hilak 15
Hilak 22
Hilak 29
 Zehaztu gabeko filmeak.
 Ermua Antzokian.
 17:00etan.

MUSIKA

Hilak 14
 Gitarra klasiko kontzertua: Ramón San Román. 20:00etan.
 Lobiano Kultur Gunean.
 Sarrera dohainik.

Hilak 21
 Jazz kontzertua: Eva Fernández Group. 20:00etan.
 Lobiano Kultur Gunean.
 Sarrera: 8€

Hilak 27
 Kontzertua: Su ta gar (akustikoa). 22:15ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 15€

ANTZERKIA

Hilak 13
 "Yerma", Sutegi Antzerkiaren eskutik. 22:15ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 8€

Hilak 20
 Antzerkia: "Idiot Txou", Ados Teatroaren eskutik. 22:15ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 10€

ERAKUSKETAK

Hilaren 12ra arte
 Argazkiak: "2016ko uda" lehiaketara aurkeztutako lanak.
 Lobiano Kultur Gunean.
 18:00etatik 20:00etara.

Hilaren 16tik 29ra
 Argazkiak: "Kontzertuak". Xabier Ziarsolo.
 Lobiano Kultur Gunean.
 18:00etatik 20:00etara.

Hilaren 30etik 12ra
 Margoa: Udal margo eskolako ikasleen lanak.
 Lobiano Kultur Gunean.
 18:00etatik 20:00etara.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilaren 4ra arte
 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara,
 Gabonetako Haur Parkea: puzgarriak, ohe elastikoak, ludoteka, jolasak, bideokonsolak eta haurrentzako tailerrak. Sarrera: 2€
 Udal Kiroldegian. (Hilaren 1ean parkea itxita egongo da).

Hilak 5
 Errege Magoen kabalgata. 18:00etan.
 San Lorenzo auzotik irtenda.

Hilak 28
 Umeentzako musikala: "Golazen". Pausokaren eskutik. 17:00etan.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 4€

BESTELAKOAK

Hilak 29
 Extremadurako txarriboda. 10:00etatik aurrera.
 Extremadurako Zentroan.

Patxi López



**TXINDURRI
 TALDEA
 Tokian
 tokiko**

**PRO
 arraindegia**



**ITSASKIAK
 ARRAIN FRESKOAK
 ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
 943 17 16 96
 ERMUA

**Infreñu
 Taberna**

Kardenal Orbe plaza
 943 174584
 www.infretaberna.com



ALBOKA



**MUSIKA
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

gurearen zaporea




Eusko Labelek marka ziwitatuko kalitate goreneko eta zapore bikaineko produktuak eskaintzen dizkizu.

Gure baserritarrek eta arrantzaleek gure lurraldeko onena ateratzen dute zuretzat. Euskadin ekoiztiko, eraldatutako eta/edo landutako nekazaritzako elikagaien produktuak. Eusko Label erosita kalitate gorenekoa eskuratzearaz gain, gure ekonomia, gure lehen sektorea, gure paisaia eta gure kultura iraunarazten ere laguntzen duzu. Gureak ematen duen gozarena.

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE
Bainugelen erakusketa
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak	- Manparak
- Ostalaritzarako muntaiak	- Segurtasun pertsianak
- Pertsianak	- Pertsiana dekoratiboak
- Instalakuntzak eta konponketak	- Estoreak
- Motorizazioa	- Eitxo-sareak

Tailerra: Zoarreko Buelta 2
943 17 86 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ETXE-BIRGAITZEAK

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Erakina Zebarkalea, 36, 3º 48200 Ermua - Bizkaia

ETXETRESNAK

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ELEKTRIZITATEA

BETA

ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaukeko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ERROTULAZIOA

ROTEK
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 beheka (Mallabia)
T / F: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com